



EDITORIALA

Euskal Telebista PUBLIKOA

FEVAPAS, Euskal Gorrak elkartearen lankidetzarekin, aspalditik biltzen da EITB erakunde publikoko arduradunekin telebistako saioak pertsona gorren eskura bene-tan jartzeko helburuarekin, bai haurren, bai helduen eskura.

Arduradunei beti gogorarazi diegu erakunde publiko direla eta gure zergen dirua-rekin ordaindutako zerbitzua dela; hori dela eta Komunikazio-mugen Legea bete behar dutela.

Hala ere, nahiz eta EITB 2 azpitoluak jarri zituen lehengo kateren artean bazen ere, arratsaldeko informatiboetan alegia, oso gutxi handitu du azpitoluak jartzeko joera hori (1999an urtero 380 ordu, eta 2005ean 520 ordu), eta antzeko ezaugarrietako beste telebista-kate autonomiko batzuen azpian dago, eta urrutiago oraindik Kataluniatik, TVE katetik edo kate pribatuetatik.

Azken urte hauetan aitzakia anitz jarri dizkigute: ETB I katearen hizkuntza-politika, Eusko Jaurlaritzaren edo Legebiltzarraren baimenik gabe zorpetzeko ezintasuna, arazo teknikoak, etab.

Hori guztia dela eta, goi-entitatetara jotzea erabaki dugu; horrela bada, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari neurriak har ditzan eskatu diogu telebista publikoa pertsona gorren esku jartzeko.

Eta bilkura horren zain gaude beste ekimen batzuk abian jarri baino lehen.

AURKIBIDEA

Editoriala	1
WEB orria/ EITB	2
Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua	2
2006ko gizarteratze-jarduerak	3
Prestakuntza-ikastaroa	3
Familia Programa	4
Diru-laguntzak / EDEKA	4

KOORDINATZAILE BERRIA

2006ko otsailetik Fevapas elkartearen beste koor-dinatzaile bat dugu.

Montse Piérola Lete

Honako helbide honetan aurki dezakezue:

Aragoi kalea, II. zk. behea, 01003 Vitoria-Gasteiz

Telefono zenbakiak: 945 287392 / 675 710 820

Helbide elektronikoa: info@fevapas.org

WEB ORRIA: www.fevapas.org

Dagoeneko prest duzu Fevapas-eko web orria

www.fevapas.org

Orain dela hilabete batzuetatik Federazioak badu Web orria euskaraz zein gazteleraz. Orri horretan honako eduki hauek ikus ditzakezu:

- *Federazioaren filosofia eta helburuak
- *Antolakuntza eta funtzionamendua
- *Federatutako elkarteak
- *Jarduerak eta programak



Honako hauek kontsulta ditzakezu:

- *Fevapas-ek egiten dituen irteeren eta gizarteratzeko jardueren urteko egutegia.
- *Federazioak antolatutako prestakuntza-ikastaroak.
- *Fevapas-ek orain arte egin dituen aldizkari guztiak, eduki interesgarri osoarekin.
- *Fevapas-eko zuzendariarekin eta Federatutako Elkarteekin harremanetan jartzeko modua.

GIZARTE ONGIZATEKO EUSKAL KONTSEILUA

Zer da? .- *Gizarte Ongizateko Euskal Kontseilua organo aholku-emailea da*, eta organo horretan gizarte-zerbitzuen eremuan lan egiten duten entitateek **hartzen dute parte**, baita zerbitzu horietako erabiltzaileek ere. Eredu honen bitartez, gizarte-eragile guztiek gizarte-ongizateko alorreko proposamenak bidal ditzakete Eusko Jaurlaritzara.

Honako hauek, beste batzuen artean, **osatzen dute** organo hori: berrogeita bi kideko Batzarra.

Aurtengo ekainean, eta aspalditik eskatu ondoren, **beste batzarkide bat gehitu dute zentzumen urrituak ordezkatzeko**. -itsuak, gorrak edoitsu eta gor direnak- .

Nahiz eta batzuen zein besteen beharrak eta eskariak oso bestelakoak izan, oraingo egoera aurrekoa baino hobea da (kualitatiboki zein kuantitatiboki), lehen batzarkide bakarra baikenuen ezaugarri anitzeko pertsonak ordezkatzeko, entzumen-urritasunarekin zerikusirik ez zuten pertsonak askotan.

Eusko Jaurlaritzarekin eta dagozkien federazioekin askotan bildu ondoren, erabaki genuen batzarkide titularra ikusmen-urritasunaren ordezkari bat izatea eta batzarkide ordezkaria entzumen-urritasunaren ordezkari bat.

Lanerako eta funtzionamendurako akordioa sinatu zen, eta honakoa erabaki zuen batzarra:

- * Bi urteren buruan, ordezkari-titularrak eta ordezkari-ordezkari txandatu dira.

Gizarte Ongizateko Euskal
Kontseiluan
ORDEZKATUAK

- *Kontseiluaren bilkurak egin baino lehen, elkartu egingo dira iritziak eta proposamenak adosteko

Bilkura EITBrekin

Urriaren 24an Fevapas, Euskal Gorraekin batera, ETBko arduradunekin bildu zen lurretan.

2006. urtean azpitolutako 650 ordu eman badituzte ere, jakin badakite 2010erako %100 lortzea (Legeak finantzen baitu hori) oso zaila izango dela.

2007an Lurreko Telebista Digitalaren sarrerarekin, lan hori errazagoa izango da

Azpitoluak dituzten programak 2006an

- *Teleberri 2. edizioa –Eguraldia
- * Saioak: “Mi querido Klikowski” eta “Nip Tuck”
- *Filma: “Formula Mortal”
- *Dokumentala: “El Evangelio Prohibido de judas”

2007. urterako konpromisoak

- *Azpitoluetako 500 ordu gehiago.
- *Hitz egindako guztia Eusko Jaurlaritzari proposatzea hurrengo Kontratu-programa sinatzerakoan.
- *Federazioei aldaketa guztien eta azpitolu guztien berri ematea

Egun bakarrekotako IRTEERAK

Martxoaren 25ean La Arboleda (Bizkaia) ikus-teko irteera egin zen. Interpretazio-bulegoaren azalpenen ostean, bertako ingurune naturalean paseatzeko aukera izan zuten.

Egun zoragarria urmaeletan eta basoetan.



Urriaren 7an 20 neska-mutil eta monitore batzuk Pagoetara (Gipuzkoa) joan ziren. Euria egin bazuen ere, programaturakotako ekintza guztiak egin zituzten: erlauntza ikustea, bazkatzea eta parkea bisitatzea bertako animaliak eta landareak ezagutzeko.

Gainera, argizariko artisau-tailerrean parte hartzeko aukera izan zuten.



GAZTEEN arteko topaketak

Ekainaren 24tik 27ra bitartean, Fevapas-eko 18 gaztek **Arabako Zuhatza Irlan** egin-dako Gazte-topaketetan hartu zuten parte.

Aurten ere ingurune bakar horretaz gozatu zuten, eta hantxe ureko kirol-jarduera asko egiteaz gain, bizikidetzeta eta elkarrekiko ezagupena sustatzeko eta guztion intereseko gaiak lantzeko beste jarduerak batzuk ere egin zituzten.



Asteburua LEKEITIDn

Maiatzaren 5etik 7ra, Fevapas-eko 31 partehartzailek **Lekeitioko (Bizkaia)** aterpean hartu zuten ostatu, itsasertzeko herri horretan asteburu atsegina igarotzeko asmoarekin.



Zenbait jarduerak, jolas eta kultura-bisita egin zituzten, itsasargia eta arrantzarako itsasontzia ikusteko aukera izan zuten.

Hori guztiari esker, denbora librean, gure neska-mutilen garapen osoa lotzeko zenbait gai eta helburu lantzeko aukera izan genuen.

2006ko Fevapas-eko Kanpamentuak uztailaren 16 ea 26 bitartean izan ziren **Azkonan (Nafarroa)**, Lizarratik hurbil eta Deierri Ibarren.

2006ko KANPAMENTUAK

Eguraldi beroa izan zuten, beraz ur-jarduerak nagusitu ziren; Muetzeko igerilekuetara joan ziren baino gehiagotan eta Allotzeko urtegiaren ur-olinpiadak egin zituzten, eta hantxe presaren uhateen sistema bitxia azaldu zieten. Iranzu Monasterioa eta herritik hurbil zegoen upeltegia bisitatu zuten. Federazioko gazteen bisita-eguna sendotu da; egun horretan neska-mutilek antolatzen dituzte ongi-etorria eta jarduerak guztiak.

Aipaturakotako guztia osatzeko, eguneko zenbait jarduerak eta gaueko beste batzuk egin zituzten. Esperientzia ontzat hartu dute 29 partehartzaileek.



IKASTAROA

"Boluntarioen Profilerak hurbilduz - Jolas kooperatiboekin nabarmenduz eta ikasiz" MONITOREENTZAKO prestakuntza-ikastaroa da. 10 ordu irausten du ikastaroak eta **Gorliz**en egin zuten **urriaren 21ean eta 22an**.

19 pertsonak hartu zuten parte, monitore beteranoak eta berriak, gor zein entzule.

Ikastaroaren helburua prestakuntza-beharrei erantzutea zen, Federazioan lan egiten duten eta gurekin parte hartzen duten boluntarioei zein monitoreei birziklatzeko ikastaroak ematea eta pertsona horiek ordezkatu ahal izatea; haiei esker, hain zuzen, gizarteratzeko jarduerak egin ditzakegulako



Monitore beteranoen talde batek ikastaroaren bi sail prestatu eta azaldu zituen, eta Kometa enpresako pertsona espezializatu baten laguntza izan zuten Jolas Kooperatiboetan.

Drokorrean ontzat hartu dute ikastaroa, nahiz eta zenbait kasutan denbora falta izan zuten eduki eta dinamika guztiak azaltzeko.

Fevapas-ek mota horretako ikastaroak egiten jarraitzeko asmoa du.

FAMILIEN PROGRAMA

2006. urtean Fevapas Federazioak jarraitu du erkidegoen arteko koordinazio programarekin, Euskal Autonomia Erkidegoko entzumen-urritasunak dituzten haurren familientzako erantzunei eta laguntzei dagokionez.

Federazioak, **Federatutako Elkarteen bitartez**, aurten ere EAEko familiei arreta egitea eta erantzutea izan du helburu, entzumen-urritasuna diagnostikatzen den unetik bertatik alegia.

Gurasoen Elkarteak izan dira, hain zuzen, **eragile zuzenak** errealitate bakoitzaren ezaugarrien, aukeren eta beharren arabera berariazko programak gauzatzeko orduan.

Taldeari ematen diogun erantzuna koordinatzeko asmoarekin, ekintza-plan komuna finkatu eta gauzatu dute.

Plan hori ekintza zehatz batzuetan gauzatu dute: adibidez, familientzako laguntza zuzena, informazio- eta prestakuntza-hizketaldiak, probintzien arteko koordinaziorako elkarteen bilkurak, pertsona gorren eta familien eskaerei eta beharrei erantzuteko hainbat alorretatik (hezkuntza, osasuna, gizarte-ongizatea, etab.) emandako erantzunen eta egindako jardueren jarraipena, sentsibilizatzeko kanpainak, profesionalentzako birziklatze-ikastaroak, etab.

DIRU-LAGUNTZAK

Aurten ere Fevapas Federazioak diru-laguntzak eskatu ditu Eusko Jaurlaritzako zenbait sailetan, Banku-entitate eta Fundazio batzuetan, eta Elkartu Federatuen bitartez, bi Foru Aldundietan eta Udal batean.

Aurreko urteetan lotutako kopuruak lortu ditu Federazioak gutxi gorabehera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko **Gazteria eta Gizarte-ekintzako Zuzendaritzak** **Gizarteratzeko Jardueretarako** emandakoa izan ezik, diru-laguntza hori askoz ere txikiagoa izan baita, eta horrek arriskuan jarri du jarduera horiekin jarraitzeko aukera.

Laster, gai hori argitzeko eta horretaz hitz egiteko, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzako arduradunekin bilkura izango dugu.

EDEKA abian

Fevapa **Elbarrituen Ordezkarien Euskal Kontseilu EDEKAREN** parte da, eta Kontseilu hori berriz abian jarri nahi da.

Batzorde Exekutiboak, zenbait bilera egin ondoren, honakoa erabaki zuen:

Hasteko eta behin, kideei jakinaraztea nortzuk diren eta zenbat pertsona ordezkatzen dituzten, kontseilua noiz eten zen, horren kontuen egoera eta atxikitako federazio eta elkarte guztiek Edeka-ri eta horren funtzionamenduari buruz dituzten ideiak eta aukerak biltzea.


Ondoren, zirriborroa egitea Batzorde Exekutiboak datorren urterako proposatzen dituen helburu eta jarduera guztiak biltzeko.

Amaitzeko, eta aipatutakoarekin batera, Edeka-k abenduaren 12an Bilbon egingo duen Batzarrerako Gai-zerrenda idaztea.

GABONAK

*FEVAPAS-ek ZORIONAK
ETA*

*2007 URTE ZORIONTSUA
OPA DIZUE*



LAGUNTZEN DUTE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila
Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila